www.ababor.eus

#ababor2027

Itsasoa gara

ABABOR

FERIA NÁUTICA – AZOKA NAUTIKOA

ONTZI (BERRI ETA AUKERAKOAK), ITSAS - KIROL ETA JARDUEREN AZOKA

2027 MARTXOAK | FICOBA
19 · 20 · 21 | IRUN

ANTOLATZAILEA: FICOBA

BULTZATZAILEA: ekp euskadiko kirol portuak puertos deportivos de euskadi

BABESLEAK: #EUSKADIBERRIA EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO; HAIN GIPUZKOA IRUN

LAGUNTZAILEA: anen asociación nacional de empresas náuticas

Zer da Ababor?

2022an Ababor Euskadiko lehen azoka nautikoa merkaturatzeko erronka gauzatu genuen.

Ficoba portu estali handi bat bihurtuko da berriro ere 2027ean, enpresa erakusketariek publikoari eskaini nahi dizkiozuen berrikuntza guztiak bertatik bertara ezagutarazteko, publikoarekin konektatuz eta zuen indarra erakutsiz.

Bi edizio arrakastatsuen ondoren, Ababor hitzordu sendo eta prestatu gisa itzuli da, sektorearen indarraren aldeko apustua egin eta Euskadiko nautikaren bienalean parte hartu nahi duten enpresei ongietorria emateko. Bat egingo al duzu?

Ababorren, norabideari eusten diogu eta erakusleiho izaten jarraitzen dugu Euskadiko, Estatuko iparraldeko eta Frantziako hego-mendebaldeko sektore nautikoaren inguruan lan egiten duten enpresa eta zerbitzuen sarerako.

Azoka, profesionalentzako eta zaleentzako topagune gisa sendo hartu du lidergoa; aisialdiko nautikaren, itsasoarekin lotutako turismoaren eta uretako jardueren jarratzaileentzat ezinbesteko ekitaldia da Ababor.

Haizea zure alde dela,
Ababor zure zain dago 2027ko martxoaren 19, 20 eta 21ean,
Ficoban.



Zergatik azoka nautiko bat Ficoban?

Nautikaren mundua gertutik ezagutzen dugu. Urtero milaka zale hartzen ditugu gure instalazioetan aisialdirako ontziak gobernatzeko baimenak lortzeko. Gure ingurunean aisialdiko nautikarekiko eta uretako jarduerekiko gero eta interes handiagoa dagoela ikusten ari gara. Ababor-en aurreko edizioak honen islada izan dira.

Mundu nautikotik hurbil egoteak eta azoka berriak, profesionalak zein publiko zabalekoak, antolatzeko dugun esperientziak, eta baita enpresa erakusketarien eta bisitarien interesa ikusteak bultzatu gaitu Ababorren itsas bidai hau jarraitzera. Lan honi esker, gaur egun Euskadiko nautikaren biurtekoa abian da.

Zergatik parte hartu Ababor-en?

Ficoba erakusleiho pribilegiatua da. Euskal Kostaldeko eta Baiona-Donostia Eurohiriko leku estrategikoan kokatua, espazio moldakor eta eklektikoa da. Azpiegitura hau etengabe aldatzen da ekitaldi ugari hartzeko, 20 urte inguruko esperientzia duen profesional-talde batek ekitaldiak antolatzen ematen duen segurtasunarekin.





Sektoreak

Ababor bisitari ororentzako azoka da, eta aisialdiko nautikarekin eta uretako jarduerekin lotutako sektore guztiak erakarri nahi ditu, gero eta jende gehiagok eskura izan ditzan aisialdirako ontziak (berriak edota aukerakoak), turismoa eta uretako esperientziei lotutako zerbitzuak.

Ontzi motordunak
Belaontziak
Paseo-arrantzako ontziak
Osagarriak, osagaiak eta elektronika





Motorrak
Atoiak
Turismo nautikoa
Charter nautikoak
Eskola nautikoak

Urpekaritza
Kanoak eta Kayakak
Pinturak
Portuak eta ekipamenduak
Aseguruak





Zerbitzu nautikoak
Erakundeak
Jantzi nautikoak
Arrantza
Uretako motorrak

Aurreko edizioak

Hona hemen Ababor-eri buruzko zenbait datu, azokaren merkaturatze edizioetako harrera ona eta interesa egiaztatzen dutenak:


enpresen %86a pozik daude emaitzekin

Ababor-en aurreko edizioetan parte hartu duten enpresa eta erakundeen % 86a, batez beste, pozik edo oso pozik daude beren parte-hartzearekin. Batez bestez, % 94k hurrengo edizio batean azokan berriro parte hartuko lukeela adierazi du.

bisitarien %78a azokarekin pozik geratu ziren

Bertaratutako bisitarien % 78a pozik edo oso pozik geratzen da ekitaldiarekin batez bestez, eta bertaratutakoen % 87ak azokaren hurrengo ediziora etortzeko asmoa duela dio.

Bisitatu gaituzten pertsonen %69a Gipuzkoakoak dira, eta % 18 Iparraldekoak. Batez bestez, bisitarien %78a kirol nautiko bat praktikatzen du.









Partehartzeko aukerak

1. Stand modular estandarra

STAND	EARLY BIRD (2026/12/18-ra arte)	Tarifa normala
12 m² stand-a	1.297 €	1.525 €
15 m² stand-a	1.620 €	1.906 €
18 m² stand-a	1.944 €	2.287€
Beste neurri batzuk		galdetu

PREZIOAREN BARNE:

- Lurzorua
- Kolore zuriko melaminazko hormak
- Errotulua
- Moketa
- 1100w-ko koadro elektriko bat eta argiztapen fokoak
- Mahai bat eta 2 aulki edo mahai altu bat eta 2 aulki
- Erantzukizun Zibileko Asegurua



Stand modularrarentzako gehigarriak:

BARKUENTZAKO EREMUA

8 m arterako luzera	-	252€/barkua
8 m eta 12 m arteko luzera	-	378€/barkua
12 m baino gehiagoko luzera		galdetu

Barku bakoitzeko prezio honek barkuaren inguruan metro bateko perimetroa gordetzea izango du kontutan, bisita errazteko. Antolakuntzak barkuei buruzko xehetasunak eskatuko ditu.

LUR EREMU GEHIGARRIA

32€/m²

Motorrak eta bestelako elementuak ikusgai jartzeko kontratatu beharreko eremua da hau. Prezio honek kontratatutako lur eremu gehigarriaren inguruan 0,5m-ko perimetroa (gutxienez) du barne, bisita errazteko.

fidelizazio programa ABABOR

ABABOR-EN AURREKO EDIZIOAN PARTE HARTU IZANDAKO ENPRESENTZAT:

<u>Bi barkuetatik aurrera:</u> luzera HANDIENA duen barkua-rentzat eremua DOAKOA izango da.

<u>Barku bakarra:</u> %50eko deskontua barkuaren eremuaren prezioan

2. Stand modularra **start up-entzat**

9 m² -ko stand-a (3mx3m)	554€ * (ez dago early bird tarifarik)

* Azoka hasi aurreko **18 hilabeteetan** sortu diren enpresentzat

PREZIOAREN BARNE:

- Lurzorua
- Kolore zuriko melaminazko hormak
- Errotulua
- Moketa
- 1100w-ko koadro elektriko bat eta argiztapen fokoa
- Mahai altu bat eta aulki bat
- Erantzukizun Zibileko Asegurua



Barkuak edo bestelakoak ekartzekotan, stand modularren tarifetan azaltzen diren barku eta lur eremuen prezioak aplikatuko dira.

3. Diseinuzko stand-entzako lur eremua

24 m² -tik aurrera	97€/m²

Parte hartzeko modalitate hau aukeratzekotan, diseinuzko stand-en muntairako araudia bete beharko da. Antolakuntzarekin harremanetan jarri argibide gehiago jasotzeko.

4. Klub eta federazioentzako stand-a

9 m² -ko stand-a (3mx3m)	252€ (ez dago early bird tarifarik)

PREZIOAREN BARNE:

- Lurzorua
- Kolore zuriko melaminazko hormak
- Errotulua
- Moketa
- 1100w-ko koadro elektriko bat eta argiztapen fokoak
- Mahai altu bat eta aulki bat
- Erantzukizun Zibileko Asegurua

Barkuak edo bestelakoak ekartzekotan, stand modularren tarifetan azaltzen diren barku eta lur eremuen prezioak aplikatuko dira.

Adierazitako prezioei BEZaren % 10 aplikatuko zaie.
230€-ko fiantza eskatzen da inskripzioa egiterakoan, behin azoka bukatzean bueltatuko dena, araudian azaltzen diren kasuetan ezezik.

Bultzatu nahi al duzu zure markaren presentzia? Bilatzen ari zarena daukagu.

Atera etekin handiena azokan partehartzeari eta bultzatu zure markaren ezagutza eskura dituzun aukera hauekin:

STAND MODULARRAREN PERTSONALIZAZIOA | BINILOAK

Zure bezero potentzialari zer markekin lan egiten duzun argi geratzea nahi duzu? Horrela, logoa berriro ikusten dutenean edo marka jakin bateko artikuluren bat erosi nahi dutenan, zure enpresa gogoratuko dute.

Pertsonalizatu zure stand modularra nahi duzun diseinuarekin, une honetan zure estrategiarekin bat datorrena nabarmentzeko, eta eragin handiagoa izan zure bezero potentzialarengan.



499 € + BEZa

PREZIO BEREZIA STAND OSORAKO

Bi alde libre dituen 12 m²-ko stand batentzako prezioa. 7 panel eta 2 kartela binilatzea ditu barne. Zerbitzu honen prezio normala: 635 € + BEZa.
Ekoizpena, kokapena eta erretiratzea barne hartzen ditu, ez du diseinua barne.

OLANA ESEKIAK



Zure marka angelu guztietatik ikusiko da, eta nabaritasun handiagoa izango duzu euskarri bereizi hauek ez dituzten enpresek baino.

Zure marka nagusiaren logoa edo azokan zure presentzia sustatu nahi duen marrkaren logoa sabaitik distira egingo du, 1.500 mm x 4.000 mm-ko (bi aldeetatik) PVCzko olana batekin. Gainera, olana bera berrerabili ahal izango duzu hurrengo edizioetan parte hartu ezkero (biltegiratzea, kokatzea eta kentzea soilik ordainduta):

565 € + BEZa

Olanaren ekoizpena, kokatzea eta kentzea ditu barne

OLANA PABILOIKO PARETAN



Zure markak aparteko ikusgarritasun bat izango du, eta, gainera, publikoari ongietorria egingo dio zure standa dagoen pabiloiaren pasabidean. Euskarri esklusiboa da hau, erakusketa eremu osoan 5 aukera baino ez baitaude (pabiloien arteko pasabideak).


Eta zure marka hemen ikusgai balego?

Azokatik pasatzen diren pertsona guztiengan eragina izatea bermatzen duen euskarria da hau. 3.000 mm x 7.000 mm-ko olana mikrozulatu batekin nabarmendu zaitez.

1.100 € + BEZa

Olanaren ekoizpena, kokatzea eta kentzea ditu barne

IRAGARKIA LED PANTAILAN



Kanpoko LED pantaila handi bat eskaintzen dizugu zure marka iragartzeko zure spot edo irudi estatikoarekin. Tamaina handiko publizitate-euskarria da, mugan, eta 14.000 ibilgailu igarotzen dira bertatik egunean.


225 € + BEZa

Spot edo irudi estatikoa bi astetan zehar (azokaren astea eta hurrengoa). Diseinua ez dago barne.

ONLINE PRESENTZIA

Online euskarrien bidez zure bezero potentzialei eragin nahi badiezu, badugu zerbait oso interesgarria zuri eskaintzeko:

1) Aipamen berezia sare sozialetan (IG) zure enpresarik aurretik adostutako post batean, zuk eskeinitako testu eta zure interesekoak dire euskarri grafikoekin:



2) zure enpresa edo markaren bannerra gure bisitari newsletterrean txertatu, azoka ospatu baino hilabete bat lehenago martxan jartzen dena. Banner bat txertatzeko aukera duzu, bi bidalketetan. Datu baseak 2.500 lagun ditu.





350 € + BEZa

Diseinua ez dago barne

Atera etekinik handiena zure enpresaren partehartzeari Ababorren egoteari, ikusgarritasun aukera hauekin

Informazio praktikoa

Data: 2027ko martxoak 19 · 20 · 21

Ordutegia: ostirala eta larunbata / 11.00 - 20.00
igandea / 11.00 - 19.00

Helbidea: Ficoba, Gipuzkoako erakusketazoka
Iparralde hiribea 43, 20.302, Irun

Harremanetarako: + 34 943 66 77 88 /
info@ababor.eus



Parte hartu ezazu erakusketari gisa
Euskadiko nautikaren biurtekoan.
Laster arte !

www.ababor.eus